



Hasiera / Bizigiro

ATZEKOZ AURRERA

Venezia txiki bat Pasaian

Albaola Itsas Kultur Faktoriako Aprendiztegi eskolako bi ikaslek 'Laguna' izeneko sandoloa eraiki dute: Veneziako ontzi tradizional bat. Pasaian ureratu dute, Italia Txiki elkartekoekin.



Saul Hoffman eta Ioanna Moutousidi, euren *Laguna* sandoloan, atzo goizean, Pasaia badiakoan. 📷 MAIALEN ANDRES / FOKU

Enekoitz Telleria Sarriegi

2021eko maiatzak 23

Ubarroi bat hegaldaka badiarantz. Txaluparen triki-traka, argi printzen epela, eta pantalanaren balantza. Egurra eta kresala sinbiosi amaigabea Albaola Itsas Kultur Faktorian. Ikusmina eta kuriositatea nahasian. Bi ikasleren distira begietan. Saul Hoffman italiarra eta Ioanna Moutousidi greziarra: «Gure aurreneko itsasontzia eraiki dugu».

Sandolo s'ciopon bat. Veneziako ontzi tradizional bat. Sei metro da luze, haritzezkoa du eskeletoa, eta alertzezkoa oholtza. Egin dizkiote *forkola*-k eta arraunak, eta jarri diote izena: *Laguna*. Ez amen-omenka. Hitz berarekin bildu baitituzte Veneziako urmaelak italieraz, eta adiskidetasuna euskaraz. Zeinen dotore ematen duen Pasaia badian.

Albaola Itsas Kultur Faktoriako Aprendiztegi Nazioarteko Ontzigintza Eskolako ikasleak dira Hoffman eta Moutousidi, eta haien formakuntzaren azken urteko proiektua izan da atzo goizean Pasaian ureratu zutena. Eguna ez da ausaz aukeratua izan, Itsasoaren Europako Eguna ospatu baita aste honetan. Eta proiektua ere ez zen martxoaren 25ean ausaz aurkeztu, Venezia hiriak 1.600 urte bete baitzituen egun hartan. Albaola faktorian egin dute ureratze ekitaldia. Xabier Agote Albaolako presidenteak, faktoriako ikasleek, ontziaren egileek, eta Italia Txiki elkartekoek hartu dute parte –Gipuzkoako eta Ipar Euskal Herriko italiarrak biltzen dituen elkarte da–.

Kulturartekotasuna

«Zer da, bada, itsasoa, ez bada kultura ezberdinen arteko nahasketa bat?», egin dio bere buruari galdera Xabier Agote Albaolako presidenteak. Horixe da haiena: itsas kulturen faktoria bat. Eta *Laguna* ontzia da emaitza. Nazioartetik etorritako hainbat ikasle ari dira Albaolan zurgintza tradizionalan itsasontziak nola egiten diren ikasten. «Euskal ontzigintza tradizionala nazioartekotzeko aukera bat da hori guretzat, baina haien ontzigintzaren berri jakin eta ikasteko ere bai», azpimarratu du Agotek.

Faktoriako tailerrean dago sandoloa paratuta: distiratsu eta berri usainez. Txistu eginda eman die Agotek ikasleei agindua. Guztien artean dakarte badiaren ertzeroa. Arraunak gora, zeremoniatsu. «Gure aurrenekoa da. Gustura gaude emaitzarekin», hartu du hitza Moutousidik. «Aprendiztegin bat egiten dute mundu osoko itsas kulturek, nik nire ontzixoa jarri dut, eta beste ikasleek euren herrialdeetako kultura jartzen dute, horrek egiten du zoragarri Aprendiztegi», nabarmendu du Hoffmanek.

Italia Txiki elkartearen izenean aritu dira Francesco Roncaglia eta Giovana Bittante. Sandoloaren berezitasunez aritu da Roncaglia, eta azaldu du Veneziako urmaeletan ahateak ehizatzeke erabiltzen zela *Sandolo s'ciopon* motakoa –erabilera bakoitzerako ontzi bat izaten zuten garai hartan Venezian, hirian mugitzeko garraiobide bat zen sandaloa, langile jendeak erabiltzen zuena, ez zutelako gondolarik edo gondolaririk, garaiko aberatsenak bezala–.

Sagardoarekin bustita

Ez dago ontzirik ureratzetik hura «busti» gabe, eta Hoffmanek bete du errituala, baina ñabardura esanguratsu batekin: sagardoa erabili du xanpaina erabili beharrean. «Itsasoko jainkoentzat» isuri ditu lehen tantak uretan, eta eztarrian behera joan dira hurrengoak. Oinetakoak erantzi eta galtza-barrenak bildu dituzte berak eta Moutousidik, eta ikaskideen laguntzaz eta txalo artean eraman dute *Laguna* badiara. Harrotasunez egin dute uretan aurrera arraunarekin uhinak osatuz eta pozarekin irribarreak marraztuz.

Giovanna Bittantek Veneziako dialektoan irakurri du testu bat, eta deskribatu du sandoloa olerki doinutan: «*Barca modesta, barca popular*».

Irakurle agurgarria:

Honaino iritsi zarenez, eskaera bat egin nahi dizugu: irakurtzen ari zaren edukia eta egunkaria babestea, konpromiso ekonomikoa hartuz. Publizitatea eta erakundeen diru-laguntzak ez dira nahikoa BERRIAren etorkizuna bermatzeko. Sarean eskaintzen dizugun edukia irakurtzen duzuen milaka irakurleek proiektuari ekarpena eginda, urrutira iritsiko ginateke.

Kazetaritza libre, ireki eta independentea egin nahi dugu euskaldunontzat. Euskaraz informatzea delako gure eginkizuna, eta zure eskubidea. Lagun gaitzazu bide horretan. Idatzi gurekin etorkizuna. Geroa zukan.

Martxelo Otamendi

BERRIAko zuzendaria

Izan zaitez BERRIALaguna

Gehien irakurriak

- 1 Ertzaintzak lau lagun atxilotu zituen bart Azpeitian, adin txikikoak haietako bi**
- 2 «Haiena oihanaren legea da, guk ordena justu bat nahi dugu»**
JON O. URAIN
- 3 «Kolpeek min egiten zuten, baina botika bagenuen: jendearen elkartasuna»**
IKER TUBIA

4

Parrandaren alde

KATTALIN MINER

5

Datorrena asmatu nahian

FELIX ZUBIA



Berria.eus - Euskal Editorea SM

Telefonoa: 943-30 40 30

Faxa: 943-59 01 72

Webgunea: webgunea@berria.eus

Publizitatea: publi@bidera.eus

Harpidetza: harpidetza@berria.eus

JARRAITU

- Facebook
- Google
- Twitter
- Instagram
- Youtube
- RSS

LEGEA

- Lege Informazioa
- Pribatutasun politika
- Cookieak
- Lizentzia
- Publizitatea
- Bidera zerbitzuak
- MIDAS Media

**berria**
taldea**berria****bidera**
zerbitzuak**HITZA****Mauka****BADOK**